

PILOTALEKUKO ORDU FINKOEN ZOZKETARAKO IRIZPIDEAK

1. Eskaera-orria bete eta kiroldegiko harreran aurkeztu

Uztailaren 5etik 8ra (biak barne) bitarte kiroldegiko harreran aurkeztu ahal izango da pilotalekuko ordu finkoak eskatzeko zozketan parte hartzeko eskaera-orria.

Talde bakoitzatik taldekide bakar batek ahal du eskaera-orria bete. Bertan eskatzen zaizkion datuak eta taldea osatzen dutenen beste hiru kideen izen-abizenak adieraziko ditu.

Jasotako eskaera guztiekin behin-behineko zerrenda bat egingo da, kiroldegiko tabloian uztailaren 9an azalduko delarik zozketaren aurretik. Zerrenda horren ordena, egunetik egunera jasotako eskaeren orden kronologikoa gordeko du.

2. Zozketa

Zozketa publikoki uztailaren 9an udal batzar aretoan goizeko 11tan egingo da. Bertan, jasotako eskaera guztiak kutxa batean sartuko dira, hauetatik bat aterako delarik. Aukeratua izan den eskaera horrek bere ordua aukeratzeko lehentasuna izango du.

Aukeraketa honen ondoren **zerrenda definitiboa** sortuko da, goizeko 12tan udalan eta kiroldegiko tabloian zintzilikatuko delarik. Zerrenda definitiboa sortuko da hautatutako eskaeratik abiatuz eta behin-behineko zerrendan eskaera horren atzetik dauden eskaeren ordena gordez.

Zerrenda definitiboan adieraziko da ere pilotalekuko ordutegia aukeratzeko etorri beharreko ordua.

3. Pilotalekuko orduen aukeraketa eguna

Uztailaren 15ean zerrenda definitiboan adierazitako ordenaren arabera eta ordutegiaren arabera egingo da pilotalekuko orduen aukeraketa.

Eskatzaileek zerrenda definitiboan adierazitako orduan etorri beharko dute kiroldegiko harrerara eta libre gelditzen diren pilotalekuko ordutegiari haien ordua aukeratu ahal izango dute. 15 minutuko epea utziko zaio eskatzaile bakoitzari orduaren aukeraketa egiteko. Behin denbora hori pasata, eta eskatzailea azaldu ez bada, hurrengo eskatzaileara pasatuko zaio aukeraketaren txanda. Berandu etorritakoak beste eskatzaileen ordutegia errespetatu beharko du eta hauek bukatu arte itxaron beharko du, ondoren gelditzen den ordutegia aukeratzuz.

Pilotalekuko ordua aukeratzeko taldeko edozein partaidek ahal du joan zerrenda definitiboan tokatutako ordutegiaren barruan.

4. Abonatuak ez direnen erreserba aukera

Behin abonatuaren aukeraketa epea bukatzen denean, hau da, uztailaren 15ean zerrenda definitiboan azkeneko bazkideak bere ordua aukeratu ondoren, eta hurrengo egun osoan zehar, hau da, uztailaren 16an zehar, abonatuak ez direnak ahal dute ordu finkoen erreserba egitea. Astigarragan erroldatutak daudenak lehentasuna dute hemen, beraz, ordu berean bi eskatzaile elkartzeko balira, Astigarragan erroldatutakoak lehentasuna izango dute orduaren erreserba egiteko. Ordua erreserbatzeko harreran emandako eskaera-orria beteta entregatu beharko dute, bertan adierazten diren baldintzak eta dokumentuak erantsiz (erroldaketa orria, kontu-korrante zenbaki bat...).

5. Bigarren ordu finko baten aukeraketa

Uztailaren 19tik aurrera edozeinek (bazkide edo ez bazkide, erroldatuta edo ez) bigarren ordu finko bat eskatzeko aukera izango du, beti ere eskatutako orduaren tarifa osoa ordaindu ondoren.